

# Haurren udako oporraldia

*Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua*

Udako oporrak iritsitakoan guraso askok nahiko lan izaten dute beren seme-alaben denbora libre antolatzen. Era askotako aukerak daude horretarako, eta ez da erraza askotan asmatzea. Gai hori abiapuntu, ariketa hauek egingo dituzu:

- Galderak erantzun ondoren, ikaskideekin partekatu.
- Erreportajea entzun ondoren, esaldiak adierazitakoekin bat datozen edo ez identifikatu.
- T(z)EKO aukera, garaia... Osatu esaldiak, norberaren iritzia kontuan hartuta eta adibideetan oinarrituta.
- Galderari erantzunez, kontatu zure esperientzia taldeko ikaskideei.



## 1- Nola antolatu gure seme-alaben oporraldia?

*Egun dauden aukerak kontuan hartuta, udako oporraldia pasatzeko zein iruditzen zaizu planik interesgarriena...*



- 12-13 urteko nerabe batentzat?

- 6 edo 7 urteko haur batentzat?

(Udaleku batera joatea, Baserri eskola batean egotea...)

## 2- Oporrak disfrutatzen dira

*Entzun zer dioten Arantzazu kazetariak eta Asier irakasleak haurren oporraldiei buruz. Entzun ondoren, identifikatu adierazitakoekin bat datozen esaldiak. Horietako bat ez da aipatu.*

	EGIA	GEZURRA	EZ DU AIPATU
Arantzazuren ustez, udako oporrek norbere erabakiak hartzeko eta lasai egoteko aukera ematen dute.			
Adituek diotenez oporretan garrantzitsua da haurrek gurasoek nahi dutena egitea.			
Oporraldia gehiegi egituratuz gero, haurra itota sentitzeko arriskua dago.			
Udako oporraldia modu antolatuegian igarotzen duten haurrek ez dute emaitza onik ematen eskolan.			
Haurraren garapenerako garrantzitsuak dira esparru informalak: lagun-taldea, kalea...			
Haurrak 7 edo 8 urterekin oraindik gurasoen zaintzapean egon nahi izaten du.			
Haurraren zaintzaz arduratzeko, garai bateko komunitateak eraiki beharko genituzke.			

### 3- Oporrak proposak dira...

*Audioaren transkripzioan honelako egiturak azaldu dira. Erreparatu beltzez nabarmendutako egiturei.*

ZERTARAKO?: -T(z)EKO eskubidea, garaia, unea, aukera... Honelako esaldietan, **zertarako** galderari erantzuten dion mendeko esaldia izenari lotuta joango da, izenaren aurrean.

- *Oporrek atsedean hartzeko **aukera** ematen dute.*
- *Hurrei aitortzen zaie atsedenerako (atseden hartzeko) **eskubidea**.*
- *Haurrentzat, abentura gozagarriak bizitzeko **une** proposak dira oporrak.*



*Aurreko egiturak edo antzekoak erabilia osatu esaldiak, zure iritzi edo bizipenetan oinarrituta. Parentesi arteko hitza ere erabili behar duzu. Ondoren, alderatu erantzunak taldekoekin.*

1. Oporretan haurrei \_\_\_\_\_ (aukera)
2. Oporraldian nerabeek \_\_\_\_\_ (eskubidea)
3. Txikia nintzela, udako oporraldia \_\_\_\_\_ (garai aproposa)
4. Ikasturtea behin amaituta \_\_\_\_\_ (premia)
5. Unibertsitate-ikasketak amaitutakoan \_\_\_\_\_ (ilusioa)

## 4- Nire udako oporraldia

*Gai honi buruz duzun iritziaz eta esperientziaz arituko gara orain. Horretarako, erantzun beheko galderari eta komentatu erantzunak taldekoekin.*

**Gogoan dituzu txikitan edo gaztetxotan bizi izandako oporraldiak?**

- Zer egiten zenuen ikasturtea amaitu ondoren?
- Kanpora joateko ohitura zenuten? Nora joaten zinen, norekin, zenbat egunerako...?
- Kontatu udaldietako oroitzapen bereziren batzuk: bat ona eta bestea txarra.



# ERANTZUNAK

## 2- Oporrak disfrutatzeko dira

	EGIA	GEZURRA	EZ DU AIPATU
Arantzazuren ustez, udako oporrek norbere erabakiak hartzeko eta lasai egoteko aukera ematen dute.	X		
Adituek diotenez oporretan garrantzitsua da haurrek gurasoek nahi dutena egitea.		X	
Oporraldia gehiegi egituratuz gero, haurra itota sentitzeko arriskua dago.	X		
Udako oporraldia modu antolatuegian igarotzen duten haurrek ez dute emaitza onik ematen eskolan.			X
Haurraren garapenerako garrantzitsuak dira esparru informalak: lagun-taldea, kalea...	X		
Haurrak 7 edo 8 urterekin oraindik gurasoen zaintzapean egon nahi izaten du.		X	
Haurraren zaintzaz arduratzeko, garai bateko komunitateak eraiki beharko genituzke.	X		

## 3- Oporrak aproposak dira...

- 1) Oporretan haurrei beraiek nahi dutena egiteko aukera eman behar genieke. (aukera)
- 2) Oporraldian nerabeek beren aisialdiaz gozatzeko eskubidea dute. (eskubidea)
- 3) Txikia nintzela, udako oporraldia aitona-amonak bisitatzeko garai aproposa izaten zen. (garai aproposa)
- 4) Ikasturtea behin amaituta irakasleek nahiz ikasleek atseden hartzeko premia handia izaten dute. (premia)
- 5) Unibertsitate-ikasketak amaitutakoan gazteek lanean hasi eta diru pixka bat irabazteko ilusioa izaten dute. (ilusioa)